

BERRIGARA

17. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, urriak 11

Bittoriano Larrañaga Etnografiaz blai

*Elosuko Mendi
ganadu feria
ostegunean*



...man ezazu pasio bat. Merezí dũ!!

Udazkenean ere zatoz Espaloira...

ALDASORO

zapatak • poltsak • osagarriak

BERGARA PIEL

larruan moda

Anezka

mertzeria • oihalak

KANELA

altzari errustikoak • opariak

Sauna eta solariuma

Agorrosingo Udal Igerilekuak



ORDUTEGIA:

Sauna eta solariuma

Astegunetan 8.00etatik 20.30etara.

Larunbat, igande eta jai egunetan, 8.00etatik 17.00etara.

Sauna eta solarium zerbitzuetarako aurretik ordua eskatu komeni da.

Masaia hartzeko ere aurretik ordua eskatu beharko da.

Txanda hartzeko, deitu 76 20 51 telefonora (Mireia/ Iratxe).

PREZIOAK:

Sauna

Saio bat: Bazkideak 380 pzta. Gainontzekoak 625 pzta.

10 saio: Bazkideak 3.400 pzta. Gainontzekoak 5.600 pzta.

Solariuma

Saio bat: Bazkideak 600 pzta. Gainontzekoak 850 pzta.

10 saio: Bazkideak 5.350 pzta. Gainontzekoak 7.550 pzta.

Masaia

20 minutu: Bazkideak 1.200 pzta. Gainontzekoak 1.500 pzta.

30 minutu: Bazkideak 1.800 pzta. Gainontzekoak 2.000 pzta.

40 minutu: Bazkideak 2.300 pzta. Gainontzekoak 2.500 pzta.

Z E B E R R I D A ?

E S A N D U T E

AMAIA LABAIEN

Islada bideogelako arduraduna

- Zenbat jende ari da azken bideo ikastaroan?

- 7 laguneko talde bat osatu da eta astero 6 ordu klase ematen ditugu, azaroaren bukaerara arte. Oinarritzko kontzeptuak landuko ditugu: kamara, magnetoa, editatzeko mahaia ezagutuz, ikus-entzuteko hizkuntzaren kontzeptuak emanez. Hori guztia praktikekin tartekatuko da eta ikasleek beren proiektuak egin ahal izango dituzte, aurretik grabatutako irudiak montatuz edo bestelako proiekturen bat landuz.

- Jendea prestaturik etortzen da?

- Denetik dago. Ikastaroetatik orainarte jende dextente etorri da eta guztiak gogoz eta interes haundiz datoz. Alde ho-



rretatik oso ondo dago, ez daukat inolako kejarik. Baina, bai, jendeak badu bideoaren inguruko ideia bat eta asko ikasitakoa sakontzera datoz. Bestalde, ikastaroetatik aparte, jendea gauza konkretuak egitera dator eta gauza politikak egiten ditu irudiak montatzera-haundiz datoz. Alde ho-

"Jendeak badu bideoaren inguruko ideia bat eta asko ikasitakoa sakontzera datoz"

I T U R R I O N E T I K

Jaurlaritzak plakak jarriko ditu Jauregi Etxean eta Ozaeta Jauregian

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Herriko hainbat monumentu seinalizatzeko bigarren faseari ekingo dio laister. Bigarren fase honen barruan Bergarako Jauregi Etxean (Banco Guipuzcoanokoa) eta Ozaeta Jauregian (Lasa jatetxekoa) bi plaka jarriko dira, beraien izena, zein urtekoak diren eta estilo arkitektonikoa zehaztuz. Aurreko urtean Euskal Herriko 80 bat monumentu izendatu ziren, tartean Bilboko katedrala, Loiolako basilika, Arantzazuko santutegia edota Donostiako hainbat monumentu.

Kultura Sailak ez du jakitera eman Bergarako monumentu gehiago nabarmenduko duen ala ez.

"Gizarte hau ezin daiteke ohitu ehun lagunetik 23 langabezian egotera. Langabezia estrukturala izan arren, tasa hori %14ra murrizteko ahaleginak egingo ditugu"

JABIER RETEGI
Industria sailburua
EUSKADI IRRATIA

"Hauteskunde garaian izaten diren eztabaida politikoak kontutan hartuta, susmoa dut langabezia ez dela gizarte honetako arazorik larrienez hartzen. Beti harritu nau 70eko hamarkadatik langabeziaren arazoa hain larria izanik, politikoen artean inoiz gai horri buruzko eztabaida-mahairik ez antolatu izanak. Bestalde, datuek argi erakusten dute Estatu espainiarrean behar litzatekeena baino askoz gutxiago gastatzen dela enplegu-politikan. Hori ikusita batek pentsatzen du beharbada politikoei ikusten dutela arazo hori baina ezin dezaketela ezer egin"

MARI CARMEN GALLASTEGI
EHUko katedraduna
HERRI IRRATIA

BERRIGARAKO JAUREGIA
480570 Bergara
Telefonoa eta Faxes: 76 03 97

Argitaratzailea:

BERRIGARA Elkartea.
Bergara, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxes: 76 08 19

Zuzendaria:

Enrike Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Enrike Elkorobereziabar
Ane Larrañaga

Maketazioa:

Enrike Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Enrike Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola
Enrike Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Enrike Elorza
Miguel Angel Elkorobereziabar
Alex Labaien

Komikiak:

Enrike Rodriguez
Enrike Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugaldede
Enrike Azkarate

Abaketa:

Antxon Gorri taldea

Tirada:

1000 ale.

Finantziazioa:

Enrike Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

1985/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irudien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Guipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du



EL PRIMER CABALLERO

Asteazkena: 22.30

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.


Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



MALICIA

Osteguna: 17.00, 19.30, 22.15.



TIERRA Y LIBERTAD

Osteguna (urriak 19): 20.00.

Zinea

▼▼ **Richard Gere** (argazkian), **Sean Connery** eta **Julia Ormond** dira **Jerry Zuckeren** filme honetako protagonista nagusiak. Erdi Aroan kokaturik, eroien bizitza, leialtasuna, burrukak, eta nola ez, amodioak aurkezten zaizkigu. Adin guztientzako filme entretenigarria eta paisaia benetan ikusgarriak. Eroiak gogor borrokatu beharko du bere neskaren amodioa lortu arte.

▼▼ **Nicole Kidman, Alec Baldwin** eta **Bill Pullman** aktoreek protagonizatutako *thriller* hau pare bat urteko atzerapenarekin estreinatu da gure artean. **Harold Beckerek** zuzenduta, *Tracy (Kidman)* eta *Andy (Pullman)* senar-emazteen bizitzan pertsonaia erabat maltzurra (**Baldwin**) agertuko da.

▼▼ **Ken Loach** zuzendariak (*ladybird, ladybir, Riff-raff, Agenda oculta*) Espainiako Gerra Zibilean girotutako filmea. Aragoiko frentera errepublikarren bandoan borrokatzeko atzerritar laguntza helduko da baina laister beraien arteko ezberdintasunak agerian geratuko dira. **Ian Hart, Rosana Pastor** eta **Iciar Bollainekin**.

Deiak

▼ **Juanjo Altuna** bergararren margo erakusketa Donostiako Olaetxe Galerian urriaren 24ra arte.

▼ **Odol ateraldia** datorren urriaren 18an arratsaldeko 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Matinala.** "La próxima generación" filmea eskainiko da igandean 11.30etan Novedades aretoan.

▼ **Behobia-Donostia** korritu behar duten antzuolarrek autobusez joan nahi baldin badute, Olalden dute izena emateko aukera ostegunean 12etatik ordu bietara.

Ogia

▼ **Osteguna 12:** Bolintxo.

▼ **Igandea 15:** Mizpildi.

FARMAZIAK

▼ **Osteguna 12:** Camacho.

▼ **Ostirala 13:** Puy.

▼ **Larunbata 14:** Guallar.

▼ **Igandea 15:** Guallar.

▼ **Astelehena 16:** Estella/Irizar.

▼ **Astearte 17:** Mozos/Amezua.

▼ **Asteazkena 18:** Camacho/

Ruiz.

▼ **Osteguna 19:** Puy/Morales.

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Elosuko ganadu feria

Ostegunean, bertsolari, trikitilari eta abarrekin

Ostegunean, urriak 12, Elosuko Mendiko Ganadu feria izango da. Goizeko 9etan feriarri hasiera emango zaio eta aurreko edizioetan bezala behiak, behorak, ahuntzak, idiak, ardiak, astoak etabar luze bat izango dira ikusgai goiz guztian zehar.

Ordubatetan sari ematea egingo da: behietan blonda, asturiana, limusin, pirenaica, suitzarra eta txarolesa onenak sarituko dira eta, horrez gain, trofeo bana emango zaie animaliarik onenak zein talderik onena aurkezten dutenei. Jarraian, ordu bat'erdietan, Jose Luis Gorrotxategi eta Sebastian Lizaso bertsoetan arituko dira.

Zaldi-mando dema

Arratsaldean, berriz, 5etan zaldi-mando dema izango da, Elosuko Bentaosteren zaldia Aizarnazabalgo Etxaberen mandoaren kontra. Idi probetan bezala, 850 kiloko harria erabiliko dute eta gainean 150 kiloko gainkarga eramango dute. Jai Batzordeak ikuskizun berezia antolatu nahi izan du arratsaldean jendeak



Ganaduz gain, inguruko baserritarren produktuak izango dira ikusgai Pilarika egunean Elosun.

zer ikusi izan dezan. Egun guztian zehar Laja eta Landakanda trikitilariak arituko dira.

Aurtengo feriak 1.300.000 pezetako aurrekontua dauka eta Jai Batzordeak Bergara (680.000 pezeta) zein Azkoitiako (125.000 pezeta) udalen laguntza jaso du. Jai Batzordeak

Pilarika egunean Elosun jende asko biltzea espero du. Joseba Lizarralde auzo alkateak adierazi digunez, "azken urtetan eguraldi oso ona egin du eta alde horretatik suerte haundia izan dugu, jende asko etorri baita. 4.000-5.000 lagun etorri izan direla uste dugu eta

nere ustez gero eta jende gehiago dator. Aparkalekua ere urtetik urtera haunditu beharra izaten dugu. Egia da jende gehiena goizez etortzen dela baina egun pasa etortzen den jende asko ere bada, gero eta gehiago. Horregatik, arratsaldea betetzeko zerbait jarzen da. Goenatxok bere errekor abalegina egin zuenean izugarritzko jendetza etorri zen eta gauzez ere Laja eta Landakanda jendea aspertu arte arituko dira".

Jai egitaraua aurrera eramateko dirulaguntza eman du Bergarako Udalak

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

PESAko ordutegi aldaketari buruz

PESA autobus konpainiarekin daukadan haserrea azaltzeko idazten dut gutun hau. Benetan lotsagarria iruditzen zait orain bi aste egindako ordutegi aldaketa egin zuen moduan egitea. Ia egunero autobusa hartzen dugunok sorpresa galanta hartu genuen egunean bertan eta inguruko artean kekak besterik ez nituen entzun: ez dagoela deretxorik, edozein modutan tratatzen gaituztela, bidaiariak ez dituztela ezertarako kontutan hartzen eta horrela beste asko. Estazioan bertan idatzizko kexa bat jartzea pentsatu genuen baina aurreko esperientzia baten emaitza ikusirik, hobe ez joatea, ez du ezertarako balio eta.

Hainbat egunkaritan ere irakurri ditut Eibar eta Arrasateko bidaiarien kekak eta guztiz ados nago. Paradak eta zerbitzuak murriztu dituzte eta ez dut sinisten orain autobus zerbitzu gehiago ditugula Bergaran, aurreko astean Berrigara zuen aldizkarian irakurri nuen bezala. Hor dago Gasteizeko kasua: autobus gutxiago iretzen dira lehen ordu dantetan egoten zelako eta orain ez.

Ez dakit norena den errua baina gutxienez informazioa denboraz ematea, erabiltzaleoi inkestatxo bat egitea eta gauzak argiago egitea eskatuko nieke

PESAko arduradunei. Orain ere, ordutegi berriak eskatzerakoan, orri mordo bat ematen dizkizute eta ea zeinek ulertzen duen ezer. Letra txikia eta inolako garbitasunik gabe. Jeroglifikoak errezoak dira. PESAk urte asko darama lanean eta nik uste dut badela ordua gauzak ganora haundiagoz egiten hasiteko. Beste herrialdeetan autobusek nola funtzionatzen duten ikusirik, oraindik ere 3. munduan gaudela uste dut.

MARITXU L.

Datorren ostiralean berriz ere zuekin

Aste honetako BERRIGARA asteazkenean jaso duzu, ostegunean Pilarika eguna dela eta, bai errebista egiten dugun kazetariok, banatzaileek e.a.ek eta baita herriko hainbat langilek zubia izango dugulako. Datorren astean, berriz, ohiko moduan ostiralean jasoko duzu Berrigara.

Bien bitartean ondo pasa astebukera luze hau eta ez ahaztu hilaren 20an berriz ere zurekin izango gaituzula. Ondo pasa!

BERRIGARA

Tiira biraka



◆ Oleo


erakusketa

Loli Rodríguez margolariaren oleo erakusketa ikusgai dago egunotan Nahikari tabernan. Paisaiak eta erretratoak landu ditu eta erakusketa urria amaierara arte egongo da zabalik.

◆ Bedelkarren

dirulaguntza

San Martinetako ferian egin zen zozketaren dirua jaso nahi duten taldeek beren proiektuak aurkeztu beharko dizkiote Bedelkar dendarien elkarteari ostirala baino lehen. Argibideak 76 04 68 telefono zenbakian.



Berrigararen V. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira abenduaren erdialdean.

Kazetaritza eta erretratu zaharren lehiaketa antolatu du BERRIGARAK

Berrigara astekariak, bere V. urteurrena ospatzeko antolatuko dituen ekitaldien barne, kazetaritza eta erretratu zaharren lehiaketak deitu ditu. Bertan Bergaran jaio, bizi edota lan egiten dutenek hartu ahal izango dute parte. Kazetaritza lehiaketan bi sail bereiztuko dira: erreportaia eta elkarrizketa. Partaideek Bergararekin zerikusia duten gaiak landu edota herriko pertsonaiak elkarrizketatu beharko dituzte eta, adinaren arabera, 2 kategoria bereiztuko dira: 16 urtera arte lehen (2 orrialde gehienez) eta 16 urtetik gorako-

tzat (3 orrialde gehienez) bestea. Bigarren taldeko lanak makinaz entregatu beharko dira. Lan guztiak ezizen batekin sinatuko dira eta egilearen datuak beste sobre itxi batean jarri beharko dira, sobraren kanpoaldean ezizena jarritz.

Erretratu zaharren lehiaketan ez da adin mugarik izango. Besteak beste, argazkiaren kalitatea, originalitatea, bizitasuna eta argazkiarekin batera aurkeztu beharko den komentarioa hartuko dira kontutan. Testuan fetxa eta agertzen diren izenak zehazteaz gain, komentario labur

bat egin beharko da (10-15 lerrokoa). Partaide bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkeztu ahal izango ditu eta argazki papezaren tamainua bakoitzaren aukeran gelditzen da. Argazkiak kartulina batean entregatu beharko dira eta testu-orrialdearekin batera sobre batetan sartu. Argazkien atzealdean egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri beharko dira.

Lanak entregatzeko epea azaroaren 24ra arte izango da zabalik Berrigara astekarian. Berrigarak saritutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du.

HILDAKOAK

Martina Olañeta Zubieta

Urriak 4, 61 urte

Jose Olañeta Zubieta

Urriak 4, 57 urte

Maria Navas Agirrezabal

Urriak 5, 84 urte

Jose Maria Otazua Peña

Urriak 6

Serapia Alberdi Gantxegi

Urriak 7, 85 urte

Zorion Arteaga Murgiondo

Urriak 9, 10 urte

Julian Etxaniz Gantxegi

Urriak 9, 82 urte

Mari Cruz Sologaitoa Lizarralde

Urriak 10, 88 urte

JAIOTAKOAK

Ainhoa Franco Arana

Urriak 7

Leire Altube Urkia

Urriak 8



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ HBren manifestazioa ostegunean Iruñean

"Euskara euskaldunon hizkuntza. Independentzia" lemapean HBren manifestazioa izango da ostegunean Iruñean. Bergararik autobusak aterako dira goizeko 9.30etan Frontoitik. Izen-ematea Arrano eta Pol-Pol tabernetan egin daiteke.

◆ Egunkariko afaria datorren ostiralean

Euskaldunon Egunkariaren berrikuntzari ongi-etorria emateko urriaren 20an afari bat antolatu da Artatse elkarteak. Afarirako txartelak Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan jarri dira salgai.

◆ Jubilatuen eguna urriaren 21ean

Datorren larunbatean, urriak 21, Jubilatuen eguna ospatuko da Donostian. Izen-ematea Jubilatuetako idazkaritzan (76 21 40 telefona) egin daiteke (plaza mugatuak). Beharrezkoa da Jubilatuen elkarteko bazkidea izatea.

◆ Nafarroa Oinez igandean

Igandean Nafarroa Oinezera, Tuterara joateko autobusak antolatu dituzte Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Aranzadi Ikastolak. Irteera goizeko 8.30etan izango da Beheko Estaziotik eta itzulera arratsaldeko 7etan. Prezioa 1.200 pezetakoa izango da. Izen-ematea eta argibideak Udaleko Euskara Zerbitzuan (77 91 66 telefono zenbakia) eta Aranzadi Ikastolan (76 26 76).



Hitzaldietan, emakumearen kirol aisialdia historian zehar aztertuko da.

Emakumearen inguruko kirol topaketak azaroaren 16an

Pleno Aretoan hainbat hitzaldi izango dira

Begarako Kirol Zerbitzuak Deba Garaiko Kirol Politikari buruzko III. Topaketak antolatuko ditu azaroaren 16an. Aurten, "Emakumearen kirol aisialdia" aztertuko da topaketetan eta egun osoan zehar gai horren inguruko hitzaldiak izango dira Udaletxeko Pleno Aretoan.

Marian Ispizua Euskal Herriko Unibertsitateko soziologoak "Emakumearen kirol aisialdiaren iragana, oraina eta etorkizuna" aztertuko du 9.30etan; Arritxu Marañón Gaztedi eta Kirol Diputatuak "Emakumea eta kirol federatuak Gipuzkoan" izenburuko hitzaldia emango du; Tomas Zubimendi Erreteriko Kiroldegiko iharduera zuzendariak "Emakumei zuzendutako ihardueren eskeintza" gaiari buruz berba e-

gingo du eta, azkenik, Gerardo Eskarza Oñatiko Kiroldegiko zuzendariak "Iharduera integralaren bidea" gaia jorratuko du.

Bazkalostean, topaketetako partaideek 45 minutuko bisitaldi bat egingo dute herrian eta 16.15etan Pilar Otegi Plazandreek elkarteko ki-deak beraiek bultzatutako ekintzen berri emango du. Ondoren, 1940 urte inguruko raketistei buruzko bideo bat emango da eta bukatzeko mahai-inguru bat izango da emakumearen kirol etorkizuna aztertzeko.

Izen-emateak 4.000 pezeta balio du ikasle, klubetako ordezkari eta emakume taldeetako ordezkari-entzat eta 7.000 pezeta gainontzeko-entzat. Argibideak 77 91 67 telefono zenbakian.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Xabier Aranburu udal museologoa eta Rosa Errazkin museoko langilea.

Seminarioko museoa ezagutzera emango da urrian

Kultur Etxean azalduko dira museoko berrizte lanak

Seminarioko ondarearen berreskurapena azalduko duen erakusketa zabalduko da datorren urriaren 27tik azaroaren 19ra bitartean Kultur Etxean. 1992tik 1995era egin izan diren berrizte eta sailkatze lanak ezagutzeko aukera izango da bertan: museoko hainbat pieza erakusteaz gain, panelak eta elementu aipagarrien argazkiak jarriko dira. Erakusketan 1990etik hona museoan egindako ikerketak eta kontserbazio eta inbentariatzeko lanak azalduko dira.

Horrela, fisika, kimika eta mineralogia laborategietako aparatuak, zoologia saileko disekatutako animaliak, anatomiako eskeletu eta pieza ezberdinak edota mineralak berriztu dira azken urtetan eta Se-

minarioak zientzia mailan izan duen garrantzia jakitera emango da. Gainera, egindako lanak esplikatzeko bisita gidatuak antolatuko dira erakusketa zabalik dagoen bitartean.

Era berean, ikaskuntzarako erabilgaitako material hauei ematen ziztzaie erabilpenaren berri jasoko dute bisitariek. Azken batean, herritarrek museoaren aberastasuna ezagutu eta subentzioak eta udal laguntzak zertarako balio izan duten azaldu nahi da erakusketa honetan.

Xabier Aranburu udal museologoa eta berrizte lanen koordinatzaileak Seminarioko ondarearekin zientzia museo bat ireki nahi du etorkizunean.

◆ Mendi irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok urriaren 22rako Huetos, Virgen Oro eta Murgiara joateko mendi irteera antolatu dute. Irteera Frontoitik egingo da goizeko 7.30etan. Txartelak Pol-Poleko barran erosi daitezke. Aldi berean, Pol-Pol Mendizale Taldeko gazte sailak urriak 22rako Kanpazar, Udalaiz eta Besaide mendi irteera antolatu du. Izen-ematea Pol-Poleko bulegoan egin daiteke, astelehenerik ostegunera arratsaldeko 7etatik 8.30etara.

◆ Emakumeen ikastaroak

Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte Ongizate Zerbitzuak emakumeei zuzendutako yoga eta brikolaje ikastaroak antolatu ditu. Izena emateko epea urriaren 27ra arte izango da zabalik, astearte eta ostegunetan, goizeko 10etatik 12etara Udaletxeko 2. solairuan.

◆ AEK eguna

Urriaren 27an Zumaian ospatuko den AEK egunera joateko autobusa antolatu da. Izen-ematea Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan eta Akulu AEK Euskaltegian.

◆ HIESari buruzko ihardunaldiak

HIES Ekimena taldeak antolatuta, HIESari buruzko sentsibilizazio ihardunaldiak izango dira Antzuolan datorren astean. Urriaren 17tik 20ra bitartean erakusketa jarriko da Pleno Aretoan, ostegunean (hilak 19) 7etan hitzaldia izango da eta ostiralean 7etan "El aceite de la vida" filmea emango da.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak
Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...
Martokua, 32 ☎ 76 45 94

◆ Autobusen ordutegi berria ◆

Irteerak BERGARAtik

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bergara-Bilbo			Bergara-Eibar		
07:15	07:15	10:10	06:30	06:30	14:20
08:40	08:40	14:30	07:20	08:20	15:20
14:30	14:30	18:10	08:20	10:20	16:20
18:10	18:10	19:15	09:20	12:20	17:20
Bergara-Donostia (Tolosatik)			Bergara-Donostia (Autopistatik)		
09:00	09:00	10:00	11:20	15:20	19:20
18:00	18:00	18:00	12:20	16:20	20:20
07:35	07:35	10:05	13:20	17:20	—
08:35	08:35	19:35	14:20	18:20	—
13:35	13:35	—	15:20	19:20	—
14:35	14:35	—	16:20	20:20	—
19:35	19:35	—	17:20	—	—
Bergara-Gasteiz			Bergara-Oñati		
07:00	07:00	09:00	07:30	—	—
08:00	08:00	11:00	09:30	—	—
09:00	09:00	14:00	13:30	—	—
11:00	11:00	15:00	15:30	—	—
14:00	14:00	17:00	18:30	—	—
15:00	15:00	19:00	19:30	—	—
19:00	19:00	21:00	Bergara-Soraluze		
21:00	21:00	—	06:30	06:30	14:20
Bergara-Iruñea			07:20	08:20	15:20
08:00	08:00	09:20	08:20	10:20	16:20
14:00	14:00	18:20	09:20	12:20	17:20
Bergara-Arrasate			10:20	14:20	18:20
07:35	07:35	15:35	11:20	15:20	19:20
08:35	09:35	16:35	12:20	16:20	20:20
09:35	11:35	17:35	13:20	17:20	—
10:35	13:35	18:35	14:20	18:20	—
11:35	15:35	19:35	15:20	19:20	—
12:35	16:35	20:35	16:20	—	—
13:35	17:35	21:35	17:20	—	—
14:35	18:35	—	18:20	—	—
15:35	19:35	—	19:20	—	—
16:35	20:35	—	20:20	—	—
17:35	21:35	—	Bergara-Elgeta		
18:35	—	—	08:40	08:40	10:10
19:35	—	—	13:45	18:10	18:10
20:35	—	—	18:10	—	—
21:35	—	—	Bergara-Zumarraga		
Bergara-Antzuola			08:00	08:00	09:30
06:40	08:00	09:30	09:00	09:00	10:00
08:00	09:00	10:00	11:00	14:00	18:00
09:00	14:00	18:00	14:00	18:00	18:30
11:00	18:00	18:30	14:10	—	—
14:00	20:30	—	18:00	—	—
14:10	—	—	Bergara-Oñati-Bergara		
17:00	—	—	07:10	—	—
18:00	—	—	08:00	—	—
20:30	—	—	13:10	—	—
			13:50	—	—
			15:10	—	—
			17:10	—	—
			19:10	—	—

Irteerak BERGARARA

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bilbo-Bergara			Eibar-Bergara		
08:00	08:00	09:00	07:00	07:00	15:00
12:30	12:30	12:30	08:00	09:00	16:00
15:30	17:00	17:00	09:00	11:00	17:00
17:00	19:30	19:30	10:00	13:00	18:00
19:30	—	21:00	11:00	15:00	19:00
Donostia-Bergara (Tolosatik)			Donostia-Bergara (Autopistatik)		
07:00	07:00	08:30	12:00	16:00	20:00
16:30	16:30	16:30	13:00	17:00	21:00
08:00	08:00	18:00	14:00	18:00	—
12:30	12:30	20:45	15:00	19:00	—
15:00	18:00	—	16:00	20:00	—
18:00	19:30	—	17:00	21:00	—
19:30	20:45	—	18:00	—	—
20:45	—	—	19:00	—	—
Gasteiz-Bergara			Antzuola-Bergara		
06:30	06:30	08:30	06:50	08:30	10:00
08:30	08:30	09:00	08:30	12:10	18:00
12:30	12:30	10:30	09:40	18:00	18:40
16:30	16:30	12:30	12:10	19:40	—
18:30	18:30	16:30	16:40	20:40	—
19:30	19:30	18:30	17:15	—	—
20:30	20:30	19:30	18:00	—	—
—	—	20:30	19:40	—	—
Iruñea-Bergara			Soraluze-Bergara		
10:30	10:30	17:00	07:15	07:15	15:15
18:00	18:00	20:30	08:15	09:15	16:15
Arrasate-Bergara			09:15	11:15	17:15
06:15	06:15	14:05	10:15	13:15	18:15
07:05	08:05	15:05	11:15	15:15	19:15
08:05	10:05	16:05	12:15	16:15	20:15
09:05	12:05	17:05	13:15	17:15	21:15
10:05	14:05	18:05	14:15	18:15	—
11:05	15:05	19:05	15:15	19:15	—
12:05	16:05	20:05	16:15	20:15	—
13:05	17:05	—	17:15	21:15	—
14:05	18:05	—	18:15	—	—
15:05	19:05	—	19:15	—	—
16:05	20:05	—	20:15	—	—
17:05	—	—	21:15	—	—
18:05	—	—	Elgeta-Bergara		
19:05	—	—	08:50	08:50	09:50
20:05	—	—	14:05	17:50	17:50
Oñati-Bergara			17:50	—	—

PESA

PESA Garraioak

BERGARA
☎ 76 16 46

DONOSTIA
☎ 21 95 55

BILBO
☎ 416 94 79

Osasuna

Kariesaren prebentzioa

- Nola prebenitu daiteke kariesa?

- Kariesa haurtzaroan agertzen da batipat. Hagi-netan plaka bakterianoa depositatzen da eta azidoek esmaltea desmineralizatzen dute. Esmaltea apurtu egiten da eta bakteriek errez daukate hagin-barruan sartzeko. Eta kariesa agertzen bada en-pasteak egitea ezinbesteko da.

Hori prebenitzeko flu-orra oso egokia da, flu-orrak esmaltea babestu eta indartzen baitu. Beraz, hagina babesten duen kapa ez da desmineralizatzen eta bakteriak agertzea nekezagoa da, ezin dute hagin barruan sartu, ez dago *zulorik* eta ez da arazorik izaten.

- Uren fluorazizazioak hortan lagunduko du...

- Bai, kariesaren prebentziorako primeran dator, ekolojistak horren kontra egon arren. Herri-tarren zati baten onerako den gauza bategatik he-zurren arazoak eta ha-ginetan zein hezurretan beltzuneak agertzeko ar-riskua guztiok jasatea sa-latzen dute.

Dena dela, argi ikusi da uren fluorazioak ka-riesaren indizea jeisten duela eta haginei ondo datorkiela. Orain 15 urte-tik hona askoz ere karies kasu gutxiago agertzen dira, batetik jendeak ho-

betu zaintzen dituelako haginak eta bestetik ha-gin pasta fluoratuen era-bilpenagatik. Urkulun oraintxe bertan hasi dira probak egiten eta emaitzak oraindik gehiago na-barituko direla uste dut.

- Beste metodo prebentiborik ba al dago?

- Higienea eta elikagai kariogenoen gutxitzea. Elikagai kariogenoak azu-karra eta karbono hidra-toak dira nagusiki.

Bestalde, haginaren soportea (ligamentuak eta hezurra) indarra galdu eta huts egiten duenean



MERTXE ASTIAZARAN
(Dentista)

gaisotasun periodontala agertzen da. Hau 40 ur-tetik aurrera gertatzen da normalean, haginak mug-ituz eta batzutan jausiz.

- Zelan prebenitu daiteke hori?

- Modu bakarra garbi-tasuna izan daiteke. Ho-rrrez aparte 6 hilabetero errebisioak egitea kome-nigarria izaten da era guz-tietako prebentzioa egite-ko, hezurren eta hagin-en posizio okerrak preben-itzeko esate baterako.

- Nola egiten da ho-

ri?

- Ortodontziak posizio okerrak zuzentzen ditu. Batzutan mastikazio eta degluzio arazoak zuzen-du behar dira. Garrantzitsua den arazo estetiko-az gain, arazo funtzionala ere zuzentzen da eta hau kasu gehienetan garrantzitsuagoa da.

- Azkenik, garbiketa-ri buruz asko hitzge-tzen da. Zein da garbi-keta egiteko modurik egokiena?


- Bueno horretan teo-ria asko daude. Nik esan-go nuke bakoitzak ondo datorkiona erabili dezala baina ondo garbitzea es-katuko nuke. Egunero gu-txienez 3 bider garbitzea komeni da, gosaldtu, baz-kaldu eta afaldu ostean, eta ez dira hortzak garbi-tzeko pasta abrasiboak erabili behar kaltegarriak direlako. Onenak fluora-tuak izaten dira.

"Kariesaren indizea asko jeitsi da azken urteetan, batez ere fluorarren erabileragatik eta haginak hobeto zaintzen direlako"



Errebisioak 6 hilabetero egitea komeni da.

Bittoriano Larrañaga (43 urte) Euskal Herriko artearen eta tresna zaharren zale amorratua da. 13 bat urterekin hasi zen tresnak batzen eta horrelaxe jarraitzen du. Museoa dirudien etxean denetarik du: argizariolak, kaikuak, kutxak, erretabloak...



Kutxak antolatzen duen "Noveles" arte lehiaketa bi alditan irabazi zuen eskultura sailean 80ko lehen urteetan.

Bittoriano Larrañaga

Bittoriano, zertan diharduzu gaur egun?

- Gauza zaharrak saldu eta egurrezko altzari eta tresnak berriztatzen. Orain kanela jotzeko tresna bat berritzen ari naiz, Bergara ingurukoa izango da, XVIII. edo XIX. mende hasierakoa. Tolosako Gorrotxategi museorako da.

- **Autodidakta zara, ezta?**

- Bai, berezkoa dut. Ez dut inoiz nire lanarekin zerikusia duen ikastarorik eta ikasketarik egin. Jendeari galdezka, museoak ikusten, irakurtzen... ikasi

dut. Akordatzen naiz 10-11 urterekin Dominikoekin ermitak eta ikustera joaten ginela. 14 urterekin niretzako gauzak batzen hasi nintzen, betidanik izan dut lehengo gauzak biltzeko eta gordetze-ko ohitura. Tresna bat

lortutakoan garbitu eta berritu egiten nuen, eta horrela hasi nintzen berritze lanetan. Dena katea da. Niretzat ez du balio gauza zahar bat hartu eta nonbait jartzeak, berritu eta txukundu egin behar da. Berritze lanetan Santi-

llanako monjek asko erakutsi didate.

- **Nolako tresnak berritzen eta biltzen dituzu?**

- Interes etnografikoa duen guztia: zeramika, metalezko ontziak, jantziak, altzariak... dena Eus-

"Berritze lanetan Santillanako monjek asko erakutsi didate"

"Gazteek altzari eta tresna zaharrak gehiago baloratzen dituzte. Edadetuek, oster, ez diete balio artistikorik eman"

kal Herrikoa. Niretzako gustatzen zaizkidan gauzak ez ditut saltzen.

- Etxean bilduma ederrak dituzu.

- Laixak, goruak, kiauak, kutxak, kandela-broak, kobrezko galdarak, arte erlijiosoa, tailak, erretabloak... garrantzitsuenak zeramika eta argizariola bildumak ditut. Zeramikan 200 pieza baino gehiago. Pieza aukeratuak dira, errepikatugabeak: orinalak, katiluak, tupinak, pitxerrak, platerak... XIX. eta XX. mendekoak dira. Argizariolarik zaharrena XVII. mendekoa dut, era horretako bakarra San Telmon dago. Garai batean leku guztietan zeuden argizariolak eta orain ez daude; lehengoan esan zidan batek duela 30 bat urte Azpeititik 200 baino gehiago eraman zituela.

- Nondik jiratzen dituzu?

-Etxeetan, merkatariak ere badaude... baserriz-baserri ezin da ibili. Guri ez digute saltzen, ez dakit zergatik baina euskaldunoi baino errezago saltzen diete ijitoei. Politena da ganbara batera joan eta gauzak topatu eta erostea. Behin adibidez Segurako etxe batean baul bat erosi nuen, ba-

ruan zakarrontzira bota behar zituzten ohialak zeuden; baula oihal eta guzti erosi nuenean barre egin zidaten. Nik ez neken zer egon zitekeen barruan, begiratzen hasi nintzenean ia bihotzekoak eman zidan... nolako gauzak zeuden: monagi-lloen alkandorak, e.a.

- Zu nondik nora ibiltzen zara?


-Euskal Herri guztian, baina batez ere hemen inguruan. Gauza gutxien ipar Euskal Herrian dago, han beste kultura bat dago eta. Han lehendik gor-

detzen dituzte gauzak, etxe guztietan daude kutxak eta tresna zaharrak, ez dituzte saltzeko. Deba Garaian sasoi batean altzari asko eta ederrak zeuden, baina duela 40 bat urte dena garbitu zuten. Kamioiak eta kamioiak eraman zituzten altzariz eta erlojuz beteta Europara. Merkatari batek esan zidan, berak Bergara ingurutik 300 armairu baino gehiago bidali zituela, eta bera ez zen bakarra izan. 500 pezetan erosi eta 3.000 pezetan saltzen zituen; aberastu zirenak



XVIII. mendeko manikia monja zaharrek egindakoa Bergarako jantziekin. Bizkaiko museoari saldu zion Bittorianok.

europarrak izan ziren, ze ez zituzten 5.000 pezetan salduko.



Eguzkialde etxea galdu dugun azken ondarea da, bazuk ezetz esan arren eklektizismoak balio handia du.

NEKAZAL ZENTRUA


OTXOA, E. M.

BANATZAI LEAK



MUSAKOLA, 2
Industria
poligonoa
Arrasate

Tfnoa: 79 17 79 - 79 86 70
Faxa: 79 15 48



"Artaldea mantentzeko ardi bat saldu behar izaten da eta nik ere horixe egiten dut, sekulako pena hartu arren"

Astia duen bakoitzean, tailerlean sartu eta altzari zaharrak berreskuratzen ematen ditu orduak eta orduak.

- Ez al da hobby garestia?

-Bai, baina 14 urte-

kin hasi eta poliki-poliki egindako bildumak dira.

Ni ez naiz Rockefeller,

akordatzen naiz 19 urte-

rekin ez nintzen diskote-

kara joaten, tresnak erosi


ahal izateko dirua aurre-ratu beharra nuen eta etxean geratzen nintzen. Artaldea mantentzeko ardi bat sakrifikatu behar izaten da eta nik ere horixe egiten dut, askotan sekulako penarekin baina piezaren bat saldu egin behar izaten dut.

- Bizkaiko museoarekin harreman onak dituzu.

- 80ko hamarkada hasieran hasi nintzen gauzak bidaltzen eta asko, gauza asko saldu eta eman dizkiet. Pena da Bergarakoak izan eta kanpoan egotea baina... Bergaran museoa egiterik lortu ez dudanez hara bidaltzen ditut: duela bi urte ijito batek Osintxun jasotako XV. mendeko ate zoragarri bat eskeini zidan, nik ez nuen ordaintzeko dirurik eta Bizkaiko museora bidali nuen. Garrantzitsuena pieza horiek ez galtzea da. Nik zerbaiz lortutakoan eramaten diet eta gero euren ardura da kontserbatzea. Tresna asko etxe partikularretan egotea baino hobe da museoetan egotea.


- Eskultura ere landu duzu.

- Soldaduzkan aspertu egiten nintzen eta eskulturak egiten hasi nintzen. Erakusketa batzuk egin nituen, Bergarako Udalari ere erregalatu nizkion bi eskultura (Usondoko parkean eta San Antonion daude). Eskerrak eman beharrean, kritikak egin zizkidaten.




GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Irizar, 2
76 14 95

JAUJA KIROLAK



Era guztietako jarriok gordetzen ditu.

horrela dira gauzak.

- **Eskulturako "Noveles" saria bi aldiz irabazi duzu, oso gutxik du-te marka hori.**

- 1979an, aurkeztu nintzen lehen aldian finalista geratu nintzen; 80an Mikel Deuna lanarekin irabazi nuen eta beste lana ere, bi lan aurkeztu behar baitziren, finalera iritsi zen. 81ean Sebastian Deunarekin irabazi eta beste lana ere finalista geratu zen.

- **Zergatik ez zenuen jarraitu eskultura egiten?**

- Eskultura espresibitate aldetik nuen premia bat izan zen, sekula ez dut pentsatu hortik bizitzia. Mundu horretan mafia handia dago, sariak ematerakoan... roiloan sartu behar duzu bestela jai duzu.

- **Gazteekin ere aritu zara?**

Santa Anako ermita berriztu genuen. Gero Altos Hornosen berritze lanei buruzko ikastaroa eman nuen: hor oso lan

polita egin genuen, San Blaseko erretabloa eta Angiozarko gurutzia berri-ritu genituen.

- **Bergarako ondarea nola ikusten duzu?**


-Asko galdu da. Basakeriak egin dira: Yarza-Ozaeta familiaren etxea bota, Txarriduna eta Karloskua baserriak, Txurrukaneko etxea, San Lorentzoko ermita, Goenkalen ibai harriz egindako lurzorua, Santa Marinako guruzpideko azken gurutzia... Behin baino gehiagotan esan dut pena dela eta ez zirela galdu behar baina alferrik izan da. Orain galzorian beste asko dugu: Elixamendiko ermita, Santa Katalina eta bertako irudiak -zoraga-

rriak dira!-, Santa Ana, Erret mintegiko hegala eta kupula... Jabea nor den ez dakigu eta bitartean behera datoz. Azkenean garbi dagoena da galtzailak bergararrok izango garela.

Azkenengo galdu duguna Eguzkialedoko etxea izan da. Garai baten lekuko zen, euskal estiloan oinarritutako eraikuntza eklektikoa. Batzuk ezetz esan arren, eklektizismoak, duda barik, balio handia du.

- **Orain dugunetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

- Oso zaila egiten zait bat aukeratzea, baina bakarra denez Agerreko Garaixea.



Deba Garaian sasoi batean altzari asko eta ederrak zeuden, baina aspaldi dena garbitu zuten".



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak


San Lorentzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarriak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Gripearen kontrako txertoa hartzeko ohiturarik ba al daukazu?



Gotzon Barrenetxea-Arando

72 urte, jubilatua


Bai, urtero hartzen dut baina bronkitis kronikoa daukat eta neretako ez da hain efektiboa.



Carmen Azkargorta

76 urte, etxeoandrea

Orain 6 bat urte hasi naiz hartzen eta hobeto nagoela igartzen dut. Gripe txiki bat hartzen baldin baduzu ere, arinagoa izaten da.



Bitoriano Felix Eguren

69 urte, jubilatua

Azken 10 urtetan hartu dut bai eta oso ondo datorkit. Tabakoa ere laga dut eta oso gauza ona izan da niretako.



Angelita Urisabel

73 urte, etxeoandrea

Urtero hartzen dut, hasi zenetik, ez dakit zenbat urte izango diren... Niri on egiten dit.



Felix Salamanca

62 urte, langilea

Ez, baina aurren beharbada hartuko dut, urtetan gora noa eta. Gainera oso ona dela esaten dutenez...



Dolores Mujika

77 urte, jubilatua

Nik sekula ez dut hartzen, orain arte ondo ibili naiz eta. Momentuz ez daukat hartzeko asmorik, aurren ez behintzat.

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3 ☎ 76 22 93 Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

SIRIMIRI
jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

MUGICA
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3 ☎ 76 10 34


AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3



Txakurrak bezala

70. hamarkadan arrakasta handia lortu zuen Desmond Morris-en "El mono desnudo" liburuak. Badu autore berak oso entretenigarri eta aberats suertatzen den txakurrei buruzkoa ere. Bertan irakurri ahal izan nuen nola txakurrek txuri-beltzez ikusten dutela. Hara hemen benetako patu tristea: txakurrak izateaz gain...

95-96ko hasi berria dugun ikasturte hau berrikuntzen ingurutik etorri zaigu Bergarako Ertainetako zenbait ikastetxe publikori. Batxilergo berrien ezarpenak hainbat buruhauste ekarri du: ikasgai berriak, antzinako ikasgaien egokitzapena, metodologia berrien aplikazioa eta abar luze bat. Hor ibili da hainbat irakasle azken bi urte hauetan ikastaroak eginez, hemendik ez dakit nora joanez, gaiak prestatzeko beste ikastetxeko kideekin bilduz, e.a. Eta beti bezala, lagun zahar batek esaten zuen moduan: "Parisen bezala". Hau da, bakoitzak ahal duena eta ahal duen moduan eginez. Izan ere, ezer gutxi laguntzen dute "goian" gure zerbitzura omen dauden batzuk.

Eta zer du "rollo" honek txakurrekin? Ba ezer askorik, ez. Bakarrik detailetxo bat: LOGSE batxilergoak edo batxilergo berriak egitera ausartzen diren ikasleek, txakurrek bezala, txuri-beltzez eginiko apunte eta liburuetan ikasi beharko dute hainbat urtetan zehar. Eta hau betiko lelo bihurtzen ari da, batez ere, euskaraz ikasten dutenentzat. Noizko gure ikasle euskaldunentzat kolorez beteriko testu-liburu erakargarriak. Abraham Olanok zazpi koloretako mailota jantzi berria duen egun hau izango al da, sikiera, etapa berri baten abiapuntua.

Xabier LARRAÑAGA



Agur naparra!

Bihotzekoak jo eta heriotzak bere hatzaparretan harra-patu hindduan joan den astean. Bihotza jartzen huen egin beharreko gauza gehienetan, eta berak hutsegín dosk azkenean. Hitaz hitzegiterakoan "akats ugariduna" esango jok batek baino gehiagok. Eta mundu honetan nork etxauzkak ba? esaten juat neuk.

Hitaz pentsatzen hasi eta domekero Arrolakin mendira joaten hasi ginen sasoi hura gogora. Koadrila osoa joaten ginuztan zuen, nagusien, ondoan: hi, hire anaiaren txistudanbolina eta hire lagunak lagun. Etxean bajaukat orduko argazki pilatxo bat. Espeziala hintzen mutikuendako. Neu eta neure anaia ez, baina ezagutzen juat hire terkedadez atletik zale bihurtutako mutikoren bat edo beste, lehenago-koak eta oraingoak. Hori ere bihotz bihotzean sartuta huen. Eta musikaz zer esan? Kantari ibiltzen hintzen Arrolako egun haietan, edo kanta jaialdian, edo Santa Ageda eskean... tabernari garaian nork hik baino musika dotoreagoa jarrri Antzuolako tabernetan?

Batzuetan narrastuta ere ikusi haut azkenalde honetan, baina etxaukat hire irudi hori gordetzeko gogorik, txarretik baino onetik askoz gehiago hintzelako. Nahiago juat goizean goiz perretxikotara joaten zen Naparra hura gogoratzea eta gogoraraztea, kantua ezpainenetan erabiltzen zue-na, umeen lagun eta umeak lagun, ingurunea estimatzen irakatsi zigunetariko bat... Gure gaztetxo garaiaren parte izan hintzelako, eskerrik asko Naparra eta biba hi!

Beñardo KORTABARRIA

ECCO .

Trabajo Temporal

ECCO T.T. S.A. Empresa de trabajo temporal
Aut. Adm. Nº 79/0002 94 Direccion General de Empleo

HONAKO LANGILEAK BEHAR DITU:

- SALMENTA PROMOTOREAK
- ADMINISTRATIBOAK
- KAJERAK
- F.P. II ERREMINTA MAKINA, MEKANIKA, ELEKTRONIKOA, KONTROL NUMERIKOA.
- PRENTSA
- MEKANIKO EGOKITZAILEAK
- SOLDADOREAK
- PEOI INDUSTRIALAK
- PINTOREAK
- IDAZKARIAK
- TELEFONISTAK
- REPONEDOREAK
- MUNTATZAILE-MEKANIKOAK
- TORNEROAK
- FESADOREAK
- ZAMALANAK
- GARBITZAILEAK

BETEBEHARRAK:

- Esperientzia
- Deba Behea-Garaian bizitzea

Interesatuak Kurrikuluma
eta argazki berria bidali:
143 Postakutxa
ARRASATE

ECCO .

Trabajo Temporal

Joan den irailaren 19an **ECCO Trabajo Temporal**-ek ordezkari-tza berria zabaldu du **ARRASATE**n bezeroei eta Deba Behe eta Garaiko langileei zerbitzu hobe eskaintzeko asmoz.

Isabel Bouzon, Raquel Retegi eta Alazne Mendiadua zeuei laguntza eskaintzeko daude **ECCO ARRASATE** berrian.

Helbidea: Ferrerías kalea 2, solairuartera
Tfnoa: 79 57 00 / Faxa: 79 20 17
20500 ARRASATE

KINU




■ **Ezkontza elegantea**

Goian duzuen koadrila **Ane Alberdi** eta **Igor Unzurrunzagaren** arteko ezkontzara joan zen hain dotore. Eti-


ketaz jantzirik, prentsa larroseko orri-aldeetatik ateratakoak ematen zuten. Txaketa eta praka beltzak, alkondara txuria, pajarita... Neskak ere *galaz* joan ziren eta ez zitzaien ezer falta,

eza juergarako gogoia ere. Guztiak goizalderarte herriko tabernak alaitzen izan genituen. Ezagutzen ez zituztenak harriturik geratu ziren koadrila xeble honekin.



■ **Txapelduna Bergaran**

Munduko txirrindularitza txapeldun izan aurretik ere **Abraham Olanok** bazituen fansak. Ez zen hain ezaguna, baina bazuen jarraitzaileak. 1992an Euskal Bizikleta Bergarara heldu zeneko argazkia duzue hau, neskatilaz inguratutik...



■ **Loteria dela eta, telebistan**

Pasa den ostegunean **Ines Galán** bergararra **Teresa Viejok** TVE-1ean aurkeztzen duen "El primi-juego" saioan azaldu zen. Ines herriko enbaxadore ona izan genuen, Bergarako tostoiak eta errelle-noak eta Antonio Urzelaik Bergarari buruz idatzitako liburua oparitu baitzizkion aurkezleari. Ines Galán **Izaskun Arziniega** bere alabarekin joan zen Madrilera eta biak sari bikainarekin itzuli ziren. Erruletan Inesek 600.000 pezeta lortu zituen. Zorionak!



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!



Mikel Gaztelurrutia

PIANO ETA SOLFEO KLASAK

(Goi mailako titulaziodun maisua)

☎ 76 50 59



■ **Victoria Eugeniara**

Bergarako Orfeoiak kontzertua eskeiniko du ostegunean, urriak 12, arratsaldeko 8etan Donostiako Victoria Eugenia antzokian. David Azurzaren zuzendaritzapean, Orfeoia Franz Schuberten "Misa DV 167" eta John

Rutteren "Requiem" a eskeiniko ditu. Maria Jesus Ugalde izango da sopranoa eta Schuberten lanean Xabier Barriola tenorea, Iagoba Fadrique baritonoa eta Eli Mendaraz pianujolearen laguntza izango du. Bigarrean, berriz, Iñigo Alberdik joko du pianoa, Iñaki Arbelaitz celloa izango da, Jon Sánchez oboea, Mari Jose Juaristi klarineta, Ainhoa Etxaburu txirula, Oscar Zurdo tronpa eta Aitor Aranburu tinbaleak. Honelako ekipoarekin arrakasta ziurtaturik dago...

Zertan dihardute ba?



Asier Altuna "Kixi" 26 urteko bergararra La Cuadrillaren filme berria grabatzen ari da Galizian. Altunak Irudi eta Soinu ikasketak egin zituen Andoainen eta dagoeneko hainbat filmeren errodaietan hartu du parte. La Cuadrillaren filme berriak "Matías juez de línea" izenburua izango du eta datozen bi hilabetetan Galizian errodaturiko da. Asier Altunak elektrikari lanak beteko ditu, La Cuadrillaren "Justino, un asesino de la tercera edad" aurreko filmean bezalaxe. "Justino..." filmean hainbat sari jaso zituen, tartean Sitgeseko Zinemaldian saritua izan zelarik.

■ **Argazki rallya**

43 argazkilarik hartu zuten parte igandean **Pol-Pol Argazki Taldeak** antolatutako argazki rallyan.

Goizeko 9.30etan eman zitzaion hasiera rallyari eta goiz guztian zehar, pintoreen antzera, herriko txoko guztietan ikus zitezkeen fotografoak ametsetako argazkiak ateratzeko asmoz.

Antolatzaileek kristala, tximiniak, fruta eta silueta gaiak jarri zizkieten eta, horrez gain, beste bi gai libre landu behar izan zituzten. Epaimahaiaren erabakia eta lanen proiektzioa urriaren 21ean 6etan egingo da Zabalotegiko lokaletan eta sari ematea, berriz, urriaren 28an.




YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Irizar, 3 Ibargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73


Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A
 Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

Salvador González

Salvador Gonzalez Cordoban jaioren baina azken 25 urteetan Bergaran bizi da eta bergararra dela harro esaten du. Gaur egun udaleko obren brigadetan ari da lanean.

- Cordoban jaiore...
- Madrilan eta Bartzelonan bizi eta bergararra naiz.
- Bergarako lekurik politena?
- Gorla eta San Martzial.
- Kirolari amorratua zara?
- Bai, dena gustatzen zait.
- Behobia-Donostia korrituko duzu?
- Aurten ez dut entrenatzeko astirik.
- Karatea ala yoga?
- Karatea. Oso bakezalea izan arren batzuten borroka egitea gustatzen zait.
- Nolatan waterpoloko entrenatzaile?
- Ez naiz aditua baina gustoko dut, gainera semea taldean dabil.
- Jokatzea ala entrenatzea?
- Entrenatzea, ez dut sekula jokatu.
- TBko lehiaketaren batean parte hartuko zenuke?



"Euskara ez da hain zaila, ikasteko euskal munduan sartu behar da. Buzeatzea ikaragarri gustatzen zait; urpean sentitzen den lasaitasuna deskribaezina da. Brasilera egindako bidaia oso interesgarria izan zen, azkenean diru barik geratu ginen"

- Ezta pentsatu ere.
- Igeri ala hegan egitea?
- Urpean ibiltzea. Buzeatzailea naiz.
- Ibili zaren lekurik politena?
- Katalunian, Startiten dauden Medas irlak.
- Zer zuen?
- Oso gorgonia (landarea) politik.
- Animaliarik etxean?
- Aske bizi behar dute baina dordoka bat dugu.
- Makailua jateko ala dantzatzeko?
- Biak, dantzatzeko ere asko gustatzen zait.
- Apaiz sartuko zinateke?
- Ez, ez nago ados beraiekin.
- Euskara...
- Ez da hain zaila, ikasteko euskal munduan sartu behar da.
- Zure alaitasunaren sekretua?
- Bizitzeko gogoia.
- Negarrik egiten duzu?
- Haurren zorigaitzengatik. Oso sentibera naiz.
- 1.000 milioko heredentzia jasoz gero...
- Parranda handi bat, karatea ikasi eta bidaiatu, oso bidaizalea naiz.
- Bidaia ahaztezin bat?
- Brasilera egin genuena.
- Zubirako planik bai?
- Hemen geratuko naiz, entrenamentua dugu.

LARUNBATETAN

LARUNBATETAN

INGELES eta ALEMANA

**KLASEAK HASTAER DAUDE
APUNTATU ZAITEZ, ORAINDIK EZ BADUZU EGIN!!**

LARUNBATETAN • LARUNBATETAN • LARUNBATETAN

9.30-12.30

9.30-12.30

9.30-12.30

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE



CIM

HIZKUNTZAK

Telefonoak:
79 01 32 / 79 65 54



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bidekurutzetan. 50 m2. Berriztuta.
☎ 71 53 49 (20.00-22.00).

Apartamentu bat alokatuko nuke. ☎ 76 25 81.

Garaje bat alokatzen da.
☎ 76 55 50.

Pisua erosiko nuke Bergaran. ☎ 76 29 95.

Baseria salgai Elosun.
☎ 76 57 24.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18an. ☎ 76 31 57.

Etxea salgai Osintxun.
☎ 76 28 70.

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 60 39.

Garajea alokatzen da Masterrekan. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Ion XXIII enparantzan. ☎ 76 27 80.

Pisua salgai Zabalotegidorrean. ☎ 76 27 80.

DENETARIK

Vespa Iris 200 motorra salgai. ☎ 76 08 51.

Fiat Tipo (16 balbula) kotxea salgai. SS-AH matrikula. ☎ 76 06 69.

Karreretako bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 60 69.

Kawasaki KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Tosai kerosenozko estufa berria salgai.
☎ 76 07 61 (eguerdian).

Bost katukuma (siamesak) eta indioilarra salgai. ☎ 76 64 65.

Haurrendako mendi bizikleta (kanbioekin) salgai. ☎ 76 29 95.

Algortan pisua osatzeko bi pertsona behar dira.
☎ 76 41 28.

Trabesera txirula egoera onean salgai.
☎ 76 35 36.

Taberna bat hartuko nuke alokairuan.
☎ 76 53 80 (Maria Jesus).

Katukuma siamesa (marroi argia) galdu dut.
☎ 76 44 22.

Opel Corsa kotxea, mendiko bizikleta, radiokasetta, sofa ohea eta bi butaka salgai. ☎ 76 07 87.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

Matematika, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke.
☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Neska batek etxeko lanak egin eta haurrak edo zaharrak zainduko lituzke.
☎ 76 57 83 (Itziar).

Espereziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkale 13, 3.a.

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBiko **partikularrak** ematen ditu.
☎ 76 53 88 (Pedro).

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

**SANTOS
IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK**

ARGIZTAPENA

ANTENA KOLEKTIBOAK

TB, BIDEO ETA SOINU

APARAILUEN

KONPONKETA

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15

☎ 76 25 03




Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

BONOFOTOA



Aitor Oyanguren

Aitor Oyangurenek irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu du eta. Angiozarko zein auzunetan aurkitzen den San Migel ermita galdetzen genizuen eta erantzuna honako hau zen: **Goimendi auzoa**. Beraz, BONOFOTOko 10.000 pezetak **Aitor Oyanguren**eni eman dizkiogu. Zorionak!!

Deputazioko lehendakaria eta Gipuzkoako gobernadore zibila izandakoaren izena dauka etxe hau dagoen kaleak. Zein da 1921ean Bergaran hil zen gizon ospetsu horren izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



1. MAILA

TALDEA	Puntuak	G.A.	G.K.
1. MADURA INDUSTRIAS GOL	3	3	1
2. ANGIOZAR	3	3	2
3. ERROTAGAIN	1	2	2
4. KABIA	1	2	2
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	2	3
6. BERGATRANS	0	1	3
7. MONGATXURRA	0	0	0
8. BAR CANALEJAS	0	0	0
9. OGIZUN	0	0	0
10. ARLOTEAK	0	0	0
11. UFALA	0	0	0
12. OZAETA	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	Puntuak	G.A.	G.K.
1. AUTOBEREZI	3	13	1
2. OH ZEREZOS	3	14	2
3. INDAR GORRI	3	12	2
4. UVE BIKOITZA	3	6	4
5. HARTU ZAMAK	1	1	1
6. KAYAK OS JARDINEIROS	1	1	1
7. NAHIKARI HOOLIGANS	1	6	6
8. ETXAGI	1	6	6
9. ERI	0	4	6
10. PAGOMENDI	0	2	14
11. HALTZARI	0	2	14
12. A ZE FLAXA	0	1	13

3. MAILA

TALDEA	Puntuak	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	3	7	2
2. AMOZKIBAR	3	4	0
3. LA JUVE	3	9	6
4. NEKROFILIKOS	3	4	3
5. SHAKTALE	0	3	4
6. ARI ARI	0	6	9
7. EH BITERRAK	0	0	4
8. IGANDEKOAK	0	2	7
9. CONSTRUCC. BERGARA	0	0	0
10. MOSKIS	0	0	0
11. SOROPOTROAK	0	0	0
12. KIROLZALEAK	0	0	0

4. MAILA

TALDEA	Puntuak	G.A.	G.K.
1. ALDOKA MALDOKA	3	17	0
2. PATXARAN TEAM	3	9	0
3. FAC	3	7	2
4. TXIPIRON	3	8	4
5. MATXAKATEGI	0	4	8
6. PATA NEGRA	0	2	7
7. OSINTXU	0	0	9
8. XURRUPAK	0	0	17
9. LABEGARAIETA	0	0	0
10. GUADALEST	0	0	0
11. PJS	0	0	0

TALDEAK



Haltzari taldeak Usoaren lekua hartu du eta 2. mailan jokatu du aurtengo denboraldian. Taldea Juan Luis Arriola, Paulino Arriola, Patxi Arriola, Raul Arevalillo, Karlos Azkarate, Angel Barquero, Jabier Irigoien, Mikel Eguren, Roberto Domínguez eta Eugenio Barquero osatzen dute. Taldeko jokalaririk batzuk denbora asko daramate jokatu barik eta adierazi digutenez oraindik txapelketara egin behar dira. Halere, ez dagiku egia edo gezurra izango den, hori zuek erabaki, baina txapelketa irabazten badute sukalde bat oparituko dietela aitortu digute...

PARTIDUAK

OSTEGUNA BARRUAN

- 09:00: Bar Canalejas-Ozaeta • Labegaraieta
- 10:00: Labegaraieta-Txipiron. • Ozaeta
- 16:00: Mongatxurra-Ufala • Construcc. Bergara
- 17:00: C. Bergara-Soropotroak • Mongatxurra
- 18:00: Moskis-Kirolzaleak • Soropotroak
- 19:00: Hartu Zamak-Eri • Moskis

OSTEGUNA KANPOAN

- 09:00: Haltzari-Pagomendi • Madura Ind. Gol
- 10:00: Madura Ind. Gol-Errotagain • Pagomendi

LARUNBATA BARRUAN

- 09:00: Matxakategi-Pata Negra • Patxaran Team
- 10:00: FAC-Patxaran Team • Matxakategi
- 16:00: Ogizun-Ozaeta • La Juve
- 17:00: Moskis-La Juve • Ogizun

IGANDEA BARRUAN

- 09:00: Iganekoak-Nekrofilikos • Nahikari Hool.
- 10:00: Nahikari Hool-Kayak O.J. • Iganekoak
- 11:00: Indar Gorri-Autoberezi • Kayak O.J.
- 12:00: Kirolzaleak-Amozkibar • Indar Gorri
- 13:00: EH Biterrak-Soropotroak • Kirolzaleak
- 16:00: Construcc. Bergara-Ezinleike • Guadalest
- 17:00: Guadalest-PJS • Ezinleike

EMAITZAK

1. MAILA

- BERGATRANS-MADURA INDUSTRIAS GOL 1 - 3
- ANGIOZAR-BILDURBAREK OPEL/LAM 3 - 2
- ERROTAGAIN-KABIA 2 - 2

2. MAILA

- A ZE FLAXA-AUTOBEREZI 1 - 13
- ERI-UVE BIKOITZA 4 - 6
- HALTZARI-OH ZEREZOS 2 - 14
- INDAR GORRI-PAGOMENDI 12 - 2
- NAHIKARI HOOLIGANS-ETXAGI 6 - 6
- HARTU ZAMAK-KAYAK OS JARDINEIROS 1 - 1

3. MAILA

- SHAKTALE-NEKROFILIKOS 3 - 4
- IGANDEKOAK-EZINLEIKE 2 - 7
- ARI ARI-LA JUVE 6 - 9
- EH BITERRAK-AMOZKIBAR 0 - 4

4. MAILA

- FAC-PATA NEGRA 7 - 2
- XURRUPAK-ALDOKA MALDOKA 0 - 17
- OSINTXU-PATXARAN TEAM 0 - 9
- MATXAKATEGI-TXIPIRON 4 - 8

TALDEAK



OH Zerezos iaz urtean lehen mailan ibili ondoren aurtengo 2. mailan arituko da, baina berriz igotzeko asmoz. Taldea Alex Familiar, Carlos Sánchez, Juan Luis Etxaniz, Alvaro Lizarralde, Javi Aranburu, Jorge Aranes, Alberto Molinero, Mikel Gallastegi eta Paul Garitanok osatzen dute. Lau urte daramatzate elkarrekin jokatu eta bi jokalaririk ezin, beste guztiak kuadrila berekoak dira. Gainera aurtengo denboraldirako aurrekontu handiarekin daudela adierazi digute. Izan ere, BKEko Etxaniz fitxatu dute, argitxerik izan nahi ez duten klausula berezia ordaindu eta gero.


Gutxitu psikikoek ere egiten dute kirolak

Atzo ospatu zen gutxitu psikikoen nazioarteko eguna eta egun batez dituzten arazoak gogorraziko dizkigute komunikabideek.

Baina egunez egun gutxitu psikikoak gaurko gizartera moldatzen saiatzen dira, bizitzak dituen hainbat arlotan behinik behin. Gauzak horrela, azken urteetan kirol arloan pausu handiak ematen ari dira gutxitu psikikoak.

Udal Kirol Zerbitzuak ere kirol iharduera egokituak antolatzen ditu arazo psikikoak dituztenentzat. Asteazken zehar bi egunez, Ipintza institutuko gimnasioan aritzen dira herriko 6 minusbalitu psikiko. "Urterako programa bat dugu eta ondo pasatzeko helburuarekin hainbat ekintza fisiko antolatzen ditugu. Horretarako, mantentzen gimnasiako ariketak, kirol jolasak eta musikaren inguruan zenbait ekintza egiten ditugu" adierazi digu Oscar Carrascal hezitzaileak.

Ondo pasatzeaz gain, kirolak gorpuztarentzat dakarren onura ere ematen dute jarduera egokituak. "Indarra, flexibilitatea, erresistentzia, abiadura eta habilitate fisiko oinarrizkoak lantzen ditugu. Halaber, oreka, lateralitatea, gorputz eskeina eta giharreen tonua ere lantzen ditugu. Horiak lantzeko kirol ezberdinetatik (hockey, aerobic, pelotarekin jokoak) har-



Kirol iharduera egokituak antolatzen ditu Udal Kirol Zerbitzuak gutxitu psikikoentzat.

tzen ditugu balio dizkiguten elementuak. Ekin-tza horiek jolas bezala aurkezten ditugu" dio Carrascalek.

Integrazioa helburu

Gutxitu psikikoek urteaz zehar egindako lana erakusteko aukera dute Deba Bailarako Kirol Zerbitzuek urtero antolatzen duten topaketetan. "Egun hori kirol festa bat izaten da. Lehiaketetan ez gara aritzen, baina norbaitek parte hartzeko interesa baldin badu txapelketetara joaten gara" esan digu Carrascalek.

Halere jardueretara 6 lagun joaten dira eta Bergaran gutxitu psikiko gehiago dagoela diote egindako erolden arabera. "Jende gehiago badago, baina ez dakit zergatik ez diren etortzen. Horrelako jarduerak gorputza

lantzeaz gain, soziabilitate aldetik ere garrantzitsuak dira. Hemen taldeko lanak bultzatzen ditugu, euren arteko harremanak sendotzeko. Horrezaz gain, positiboa izango litzateke, programa normalizatueta integratzea. Integrazio

lan hori ez da bultzatzen, baina garrantzitsua izango litzateke" dio Carrascalek.

Esan dezagun azkenik, oraindik programa honetan ez dabilzan gutxitu psikiko bergararrei parte hartzera deitzen direla hezitzaileak ■.

Pelota eta tenisa

Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi digu, Zabalotegi eta Osintxuko frontoiak erabiltzeko asmoa duenak alokatzeko aukera duela. Zabalotegiko frontoian orduak libre daude, asteazken ordu batzuk hartuta egon arren. Ordu bakoitzeko 400 pzt.a alokairua ordaindu beharko da eta beste 200 pzt.a argia ordaintzeko. Aldagelak eta dutxak prezioaren barruan daude. Osintxuko frontoian, berriz, Gabonak arte hartuta daude ordu guztiak, baina urte hasieratik aurrera alokatu ahal izango da. Bestalde, Labegarrietako tenis pistaren alokairuak ere 400 pzt.a balio du eta tenis ikastaroak antolatu dira astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7.15etatik 8.15etara hasierakoa eta 8.15etatik 9.15etara hobekuntza mailakoa. Interesa duenak, Udal Kirol Zerbitzura jo dezake.

FUTBOL PARTIDUAK

◆ Bergara-Munibe

Lehen errejionala.
Osteguna, 16.00. Agorrosin.

◆ Bergara-Santo Tomas

Ohorezko mailako jubenilak.
Osteguna, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-Arrasate

2. mailako kadeteak.
Osteguna, 10.00. Ipintza.

ESKUBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Bermeo

Kadete neskek.
Osteguna, 11.00.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Bermeo

Jubenil neskek.
Osteguna, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Urdaneta

Senior mutilak
(2. Nazionala).
Larunbata, 18.30.
Labegaraieta kiroldegia.

ESKUBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Urbina Maltzaga

Junior mutilak.
Larunbata, 16.00.
Mariaren Lagundia.

FONTSI MEMORIALA

VI. Fontsi Memorialeko egitaraua prest dago jadanik. Urriaren 21ean izango da eta futbito txapelketa, mendiko bizikleta trabesia eta hiruko saskiratzeen txapelketa antolatuko dira. Futbito txapelketa goizeko 8etan hasiko da Seminarioan, 12 ordu iraungo du eta Ariznoa, Deportivo, eta Pol-Pol tabernetan eman daiteke izena urriaren 18a baino lehen. Talde bakoitzeko 3.000 pezeta ordaindu beharko da.

Iñigo Ansuategi

Rugbya gustoko kirola

Iñigo Ansuategik 6 urte daramatza rugbyan jokatzen Arrasateko taldean. Denboraldi berria datorren astean hasiko dute, baina Ansuategik hatzamarrean lesio bat duenez ezin izango du 15 egunetan jokatu.

- Nola hasi zinen rugbyan jokatzen?

- Bergarako lagun batek esan zidan bere ezagun batek Eibarren jokatzen zuela eta berarekin jarri nintzen harremanetan eta hor nabil oraindik. Eibarren hasi behar nintzen jokatzen eta azkenengo orduan Arrasatera joatea erabaki nuen.

- Gogorra al da zuen kirola?

- Fisikoki, beste kirol batzuen moduan, topera egon behar zara. Kontakto askoko kirola da eta alde horretatik asko eskatzen du. Halere, kirol hau edozeinek egin dezake.

- Iaz mailaz jeitsi zineten eta aurtengo denboraldia nola ikusten duzu?

- Kategoria apalenean gaude eta uste dut arazorik gabe igoko dugula. Gainera talde barriak apuntatu dira eta horiei errazago irabaziko diegu.

- Duela gutxira arte rugbyan profesionaltasuna ez zegoen onartuta. Orain, aldiz, bai...

- Bai eta ondo ikusita dago. Ingalaterran orain arte kirol amateurra zen, baina izarrak publizitateari esker rugbytik bizi ziren. Halere, guri klubak bakarrik kamisetak eta

galtzak ematen dizkigu. Beste guztia gure poltsikotik ordaindu behar dugu eta dirua ateratzeko boletoak saldu, txoznak jarri e.a.ak egiten ditugu.


- Partidu ostean beste "partidu" bat izaten duzue, ez?

- Bai, 3. Zatia deitzen zaio. Partidu ostean etxeko taldeak poteoa ordaintzen du eta aurrekontu onenak dituztenak afari-txo bat edo ordaintzen dute. Kluben arteko harremanak onak dira eta urtero Eibarkoekin bildots bat jokatzen dugu.

Aurten ordaintzea tokatu zaigu.

- Baina partiduan zehar egurra ematen egon odoren, ez al da 3. Zatian haserririk izaten?

- Ez, dena zelai jokoan geratzen da. Giro ona dago talde guztien artean. Halere izaten dira *tangana* batzuk, baina esan bezala dena zelaian geratzen da. Jendeak uste du rugbya kirol bortitza dela, baina esango dizuet 6 urtetan bi lesio izan ditudala bakarrik. Ez dut uste hain gogorra denik...



"Edozeinek egin dezaken kirola da rugbya".

"Kluben arteko harremanak onak dira. Eibarkoekin bildots bat jokatzen dugu urtero"



Ikastolako futbol taldea

Gaur egun eskola kirola izaten den antzera, orain dela urte batzuk ere ikastola arteko futbol txapelketak antolatzen ziren. Argazkian agertzen den taldea Aranzadi Ikastolako 5 eta 6. mailako 10-11 urteko mutikoak dituzue. Gutxi gora behera 1976. urtean Santa Agedako futbol zelaian Arrasateko ikastolaren kontrako partidua hasi aurretik ateratako argazkia da. Gaur egun bezala, hil ala bizikoak izaten ziren arrasatearren eta bergararren arteko partiduak. Erretratuan agertzen diren gehienak bergararrak dira, baina tartean bada antzuolar eta elgetarren bat edo beste.

Hona hemen argazkian agertzen direnenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Eneko Altube, Andoni Zurbano, Jose Jabier Agirre, Martin Egaña, Luis Fernando Manzisidor "Txixi", Jabi Arana, Bittor Zangitu eta Joxe Lazkano.

Makurtuta: Juan Manuel Lasa, Roberto Irazabal, Jesus Mari Azula, Jose Agustin Gorrotxategi, Josu Linazisoro, Mikel Azkarate, Josu Inclán eta Eneko Azkarate.

Argazkia: Fray Jacinto

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroa 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48




ederT

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintza

Kutxa fundazioa



UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE